

2012 · UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBA

Literatura unibertsala

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



EUSKAMPUS

Nazioarteko Bikaintasun Campus
Campus de Excelencia Internacional

en la red de



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2012ko EKAINA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

2012 JUNIO

LITERATURA UNIVERSAL

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Aukera bakoitzean 4 galdera daude. Bakoitzaren puntuazioa honako hau da:

1. galdera: 3 puntu
2. galdera: 2 puntu
3. galdera: 3 puntu
4. galdera: 2 puntu

2., 3. eta 4. galderak nahitaezko testu eta irakurketei dagozkie. 1. galdera, berriz, irakasgaiaren beste edukiekin lotuta dago.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

En cada una de las opciones hay 4 preguntas. La puntuación de cada una de ellas es la siguiente:

- Pregunta 1: 3 puntos
- Pregunta 2: 2 puntos
- Pregunta 3: 3 puntos
- Pregunta 4: 2 puntos

Las preguntas 2, 3 y 4 se refieren al texto y a las lecturas obligatorias. La primera pregunta, en cambio, afecta al resto de los contenidos de la materia.



TESTUA

Bi arlote sartzen dira, aitzurra eta pala eskuetan.

Lehen arlotea

Kristau-modura lurperatu behar al da honako hau, nahita bilatu baitu bere salbazioa?

Bigarren arlotea

Baietz, bada; egik, egik azkar hobia. *Jurezak* (1), aztertu, eta kristau-lurra erabaki dik.

Lehen arlotea

Nola liteke, ez baten ito bere buruaren defentsan?

Bigarren arlotea

Hori duk, bada, erabakia.

Lehen arlotea

Se offendendo (2) izan behar dik, ezin duk besterik izan. Izan ere, honatx gakoa: ohartuki itotzen banaiz, horrek egintza bat argudiatzen dik; eta egintza batek hiru adar ditik; hau da: egitea, gauzatzea eta burutzea. *Argu* (3), ohartuki ito zian bere burua. [...]

Bigarren arlotea

Jakin nahi al duk egia? Aitoren alaba bat izan ez balitz, kristau-lurretik kanpo ehartziko zitean.

Lehen arlotea

Hori duk hitza: eta penagarriena, handiek esku gehiago izatea mundu honetan beren burua ito edo zintzilikatzeko, beren kristaukideek baino. Ea, ene pala. Aitoren seme zaharrik ez duk, baratzezain, aitzurtzaile, eta hobigileak adinakorik. Adanen lanbideari eusten ziotek.

Bigarren arlotea

Aitoren seme izan al zen Adan?

Lehen arlotea

Lehenbiziko iskiluduna izan zuan.

Bigarren arlotea

Ez zian-eta iskilurik!

Lehen arlotea

Pagano petoa al haiz hi ordea? Nola ulertzen duk hik Eskritura? Eskriturak zioz Adanek aitzurrean jardun zuela. Beso bi izanez gero, nahikoa iskilu ez al da aitzurra? [...]

HAMLET eta HORAZIO sartzen dira, urrunean.

[...]

Badoa BIGARREN ARLOTEA.

(Aitzurrean kantari)

*Gaztetan maitemin, minez,
zeinen zitzaidan ezti
denbora galtzea maite laztanez;
oi, alferrik hainbat asti.*

Hamlet

Ez ote du sujetu honek bere egitekoaren sentipenik, kantari aritzeko hobi-zulatzen?

[...]



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2012ko EKAINA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

2012 JUNIO

LITERATURA UNIVERSAL

Lehen arlotea (*kantari*)

*Baina adin lapur isilak
nau ni gogor atzitu,
eta lehorrean ezarri,
alegia ez bizitu.*

Burezur bat jaurtitzen du.

Hamlet

Burezur horrek bazian mihi bat, eta kantatzeko gai zuan behiala. Horra nola duen orain dongeak lurrera harrika irazitzen, Kainen masailezurra bailitzan, hari zor baitzaio lehenbiziko hilketa. Politikari baten kaskarra izan litekek orain asto honek halako tratua ematen diona, Jainkoari iruzur egiteko gai zen batena; ez al deritzok hala? [...]

Beste burezur bat jaurtitzen du.

Hamlet

Horra beste bat. Ez ote da, ausaz, legegizon baten burezurra? Non dira orain haren kako-makoak, haren agudeziak, haren kasuak, haren tenentziak, haren trikimailuak? Zergatik sufritzen du horrela kanka jotzea buruan arlote trauskil honek pala zikin batekin, eta ez dio jartzen salaketarik eraso-kalteez? Mmmm! Lur-erosle handiren bat zuan apika bere garaian, bere hipotekekin, bere zor-agiriekin, bere itunekin, bere berme bikoitzekin, bere aseguruekin. Hau ote du, beraz, bere itunen ituna eta bere aseguruaren aseguruua, bere kaskar ituna hauts itunez beterik kausitzeko honela? Ukatuko ote diote orain bermea bere bermeek, bikoitzak izanik ere, hitzarmen-lagin baten luze-zabala doi-doi den erosgai baterako? Haren lurren eskritura guztiak ozta-ozta dituk sartzen kutxa honetan. Lurjabeari berari ere ez al dagokio gehiago, hara?

Horazio

Zipitzik ere ez gehiago, jauna.

(1) Epaileak

(2) Arlote horrek "se deffendendo", bere buruaren alde, esan nahi du baina esapidea txarto esan du.

(3) "Ergo", beraz, esan orde. Berriz ere esapidea txarto esan du.



A AUKERA

1. Azaldu itzazu narratiba errealistaren ezaugarriak, erlazioa itzazu hemeretzigarren mendeko testuinguru historikoarekin, eta adieraz ezazu zer aldaketa sortu ziren narratiba erromantikoarekin alderaturik.
2. Identifika ezazu goian idatzitako zatia zer obratakoa den, eta adierazi izenburua, egilea, nazionalitatea, literatura-generoa eta zer une historikotan kokatzen den. Erlazioa itzazu generoa eta une historikoa, eta azaldu ezazu zer-nolako berrikuntzak ekarri zituen (publiko motan eta eszenaratzean) antzerkigintza barrokoak gizartearekiko harremanei dagokienez.
3. Identifika itzazu zati horretan testu dramatikoaren kanpo-egitura osatzen duten elementuak, eta azaldu ezazu zein den oharren funtzioa. Azterketa hori obraren osotasunari zabaldu, zer alde dago ekitaldiaren eta eszenaren artean? Edukiari dagokionez, nola agertzen da heriotzaren gaia zati horretan eta obra guztian? Adieraz ezazu ea tragedia ala komedia den, eta zergatik.
4. Aurreko galderan hizpide izan duzun heriotzaren gaia kontuan harturik, azaldu ezazu, gai horri dagokionez, zer inpresio eragin dizun liburuak. Pertsonaia nagusiak bizitzaren eta heriotzaren aurrean duen jarrera bera duzu? Haren zalantza berdina? Kontuan izan zeure iritzia idatzi behar duzula (zeure bizipenak ere kontatu ditzakezu).

B AUKERA

1. Koka ezazu geografikoki eta kronologikoki eleberrigintza garaikidearen "Belaunaldi galdua" deritzona. Azaldu ezazu izen horren zergatia, zein testuinguru historikotan agertu zen kontuan izanik. Aipa itzazu bi obra eta bi egile esanguratsu, eta azaldu ezazu, labur-labur, nola bideratzen duten haiek literatura soziala edo konprometitua, belaunaldi horren ezaugarri nagusia.
2. Identifika ezazu goian idatzitako zatia zer obratakoa den, eta adierazi izenburua, egilea, nazionalitatea, literatura-generoa eta zer une historikotan kokatzen den. Zati horretan agertzen diren pertsonaia motak eta haiek esaten dutena kontuan harturik, erlazioa ezazu obra garai hartako gizarte eta pentsamoldearekin.
3. Konpara ezazu zati horretan parte hartzen duten pertsonaien hizkuntza. Azaldu ezazu obra osoak duen erregistro-nahasketa, eta lotu ezazu antzerkigintza barrokoak ekarritako berritasunekin eta arau klasikoaren hausturarekin. Bestalde, azter ezazu zer lotura dagoen, gaiari dagokionez, pertsonaiek abestutako bi ahapaldien artean. Zer esaten digute? Zure ustez, ba ote du erlazioa *Carpe diem* topikoarekin? Azaldu ezazu topiko hori, eta aipa ezazu topiko hori erabili izan duen beste egileren bat.
4. Hamleten amaierako bi solasaldiak kontuan hartuta, zer ondorio uste duzu ateratzen duela pertsonaia heriotzaren indarrari buruz? Iritzi berekoa bazara, erants itzazu zeure argumentuak ideia hori indartzeko. Iritzi horretakoa ez bazara, azaldu ezazu eta argudiatu zeure iritzia.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

LITERATURA UNIBERTSALA

OHARRA

- Oro har, puntu bat kendu ahal izango da (gehienez) ortografia-akatsengatik. Halaber, puntuak gehitu ahal izango dira, baldin eta adierazpena egokia, koherentea eta lotua bada.
- Ebaluazio-adierazle batzuei puntuazio jakin bat esleitu zaie. Hala ere, beste adierazle orokorrako batzuetan, puntuazio globala ematen zaio galdera osoari, eta zuzentzailearen gain uzten da bakoitzari zenbat puntu eman.

A AUKERA

1. galdera (3 puntu)

- Narratiba errealistaren hiru ezaugarri, gutxienez, azaltzea eta garatzea: 1 puntu.
- Narratiba errealista XIX. mendeko bigarren erdiko testuinguru historikoan kokatzea. 1 puntu.
- Narratiba errealista narratiba erromantikoarekin konparatzeko gai izatea, eta bi aldaketa garrantzitsu (bi, gutxienez) adieraztea. 1 puntu.

2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra, generoa...) identifikatzea: 1 puntu.
- Antzerkigintza barrokoaren ezaugarriak, zer gizarerentzat egiten den kontuan hartuta eta horri lotuta daudenak, azaltzea (publiko mota eta eszenaratzea), eta barrokoaren aurreko antzerki-adierazpenen aldean dakarren berritasuna adieraztea: 1 puntu.

3. galdera (3 puntu)

- Pertsonaien solasaldien aurretik jartzen diren oharrak eta haien funtzioa azaltzea. Ekitaldia eta eszena bereiztea: 1 puntu
- Testuak heriotzari buruz egiten duen planteamendua azaltzea: heriotza, gizaki guztien berdintzailea. Heriotzaren gaia obra osoan azaltzen dela kontuan hartzea: 1 puntu.
- Komediak tragediaren aldean zer ezaugarri dituen identifikatzea: 1 puntu.

4. galdera (2 puntu)

- Obrak heriotzaren gaia tratatzeko moduak eragin dizkion inpresioak adieraztea.
- Bizitzaren eta heriotzaren arteko loturari buruz Hamletek dituen jarreraren eta zalantzen gaineko ikuspuntua adieraztea.
- Bere iritziak ongi argudiatzea.
- Obraren sentimenduak, pentsamenduak eta balio kolektiboak adierazten direla ohartzea eta aipatzea.
- Obraren edukiaren eta bere bizipenen arteko lotura egitea.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

B AUKERA

1. galdera (3 puntu)

- Ipar Amerikako "Belaunaldi galdua" geografikoki eta kronologikoki kokatzea: 0,5 puntu.
- Belaunaldi galdua bere testuinguru historikoarekin lotzea "galdu" izendapena azaltzeko: 1 puntu.
- Hura ordezkatzan duten bi obra eta bi egile esanguratsu aipatzea: 1 puntu.
- Hautatutako obren izaera soziala edo konprometitua azaltzea: 0,5 puntu.

2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra, generoa...) identifikatzea: 1 puntu.
- Obra gizartearekin eta garai hartako pentsamoldearekin erlazionatzea: 0,5 puntu.
- Ehorzleek justiziarri buruz duten elkarrizketa aipatzea: 0,5 puntu.

3. galdera (3 puntu)

- Hamleten eta ehorzleen hizkuntzaren arteko desberdintasunak adieraztea.
- Elementu tragikoak eta komikoak (eta goi-mailako pertsonaiak eta xumeak) nahasteari dagokionez antzerkigintza barrokoak ekarritako berritasunak eta horrek ekarri zuen arau klasikoekiko haustura azaltzea.
- Estrofeak diotena zuzen azaltzea, eta gaztetetasunaren eta zahartzaroaren (heriotzaren) antitesia erakustea.
- *Carpe diem* topikoa ezagutzea eta estrofei lotzea.
- Topiko hori erabili zuen beste egileren baten izena ematea (Petrarka, Garcilaso, eta abar).

4. galdera (2 puntu)

- Hamletek heriotzaren indar berdintzailearen gainean egiten duen hausnarketari buruz duen iritzia koherentziaz azaltzea.
- Pertsonaiaren ideien alde edo kontra egitea, eta bere jarrera azaltzea.
- Jarrera hori argudio pertsonal eta koherenteen bidez defendatzea.
- Obraren edukiaren eta bere bizipenen arteko lotura egitea.